



Jaime Oraá, Pedro Miguel Etxenike eta Bernardo Atxaga

Bernardo Atxaga Jakiundeko kide izendatu dute Deustun

Jakiundek urteko azken bilera izan zuen Deustuko Unibertsitatean azaroaren 19an, eta bertan egon ziren Bizkaiko Ahaldu Nagusia, José Luis Bilbao, eta Jaime Oraá errektorea, biak ere Jakiundeko kideak. Saioan zehar, Bernardo Atxaga erakundeko kide izendatu zuten. Idazleak, Jakiundeko kide den José Antonio Garriroekin batera, gaur egunean jorratzen dituzten gaien inguruko azalpena egin zuen, bakoitzak bere espezializazio arloan. «Topaketak» edo «Encuentros Jakiunde» proiektua

ere aurkeztu zen, zientziak, arteak eta letrak bigarren hezkuntzako ikasleei hurbiltzeko asmoz sortu den esperientzia pilotua. Horretarako, ikastetxeetan, bere espezializazio arloan ospetsuak diren pertsonen solasaldi batzuk eskaintzen dituzte. Programaren helburua ikasleak jakintza zientifiko, artistiko eta literarioan motibatzea da. Dagoeneko, Jakiundeko kide batzuek hartu dute parte halako esperientzia batzuetan eta, ikasleek ekimena gogotsu hartu dutenez, datorren urtean ere programarekin jarraitzeko asmoa dago.